



## I. ATALA

### BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA

#### Foru Enpresak eta Foru Erakundeak

#### DEMA - Enplegu eta Ekintzaitza Foru Agentzia

**Lanpostu teknikoetan esperientzia duten 50 urtetik gorako emakume langabeei zuzendutako Emalan Plus izeneko Laneratzeko Laguntza Integraleko Programan parte hartzeko oinarriak.**

Indarrean dagoen araudia betez, argitara ematen dira Emalan Plus izeneko Laneratzeko Laguntza Integraleko Programan parte hartzen dutenentzako oinarriak, lanpostu teknikoetan esperientzia duten 50 urtetik gorako emakume langabeentzat.

Barakaldon, 2022ko otsailaren 15ean. — DEMA-Enpresa Garapenaren zuzendari kudeatzailea, María Victoria Riol Rojo

**EMALAN PLUS IZENENKO LANERATZEKO LAGUNTZA INTEGRALEKO  
PROGRAMAN PARTE HARTZEKO OINARRIAK****1. Oinarriak**

Bizkaiko Foru Aldundiak onetsitako 2020-2023 Enplegu Planak ekitate, berdintasun eta aniztasunaren ikuspegia ematea enplegu-politika aktiboetarako. Genero-ikuspegiak funtsezko garrantzia duen begirada. 2020-2023 Enplegu Planaren lehenengo erronka langabeziaren gizarte-kostua prebenitzea eta murriztea da. Horrek esan nahi du lehentasuneko kolektibo gisa gazteak, 45 urtetik gorakoak eta emakumeak ezarri behar direla.

Bizkaiker.eus-en langabeziari buruz dauden azken datuen arabera, 2021eko abenduan, Bizkaiko langabeen %52 iraupen luzekoak dira, eta horietatik %59 emakumeak dira. Bestalde, Bizkaiko langabeen %54k 45 urte edo gehiago dituzte, eta horietatik %54 emakumeak dira.

50 urtetik gorako pertsonen ibilbide profesionaleko urte asko dituzte oraindik egiteko, eta une profesional onenean daude, ezaguera eta gaitasun jakin batzuekin, aitortu eta baloratu beharrekoak. Paradoxikoki, pertsona horiek laneratzeko zailtasun handiagoak dituzte, eta emakumeen kasuan, adinaren eta emakume izatearen aurreiritzi bikoitza dela eta, ardurako lanpostuetan sartzeko oztopo bikoitza dute.

**2. Erakunde parte hartzaileak**

Egoera horren aurrean, DEMA-Bizkaiko Enplegu eta Ekintzaitza Foru Agentziak lehentasuneko kolektibotzat jotzen ditu 50 urtetik gorako emakume langabeak, berriz lan merkatuan sartzeko esku hartzeak diseinatzeko orduan. Ezinbestekoa da pertsona horiei trantsizio profesionala egiten laguntzea, trebetasunak eta baliabideak emanez, eta, batez ere, balioa eta ikusgarritasuna emanez eta konfiantza sortuz, proiektu profesional berri bat aurkitu dezaten; horrela, garatzen jarraitzeko eta haien talentu baliotsua besteen zerbitzura jartzeko aukera izango dute.

Era berean, garrantzitsua da enpresa sarean kontzientzia handiagoa sortzea, adinarekin zerikusia duten oztopo mentalak eta kulturalak ezabatzen laguntzeko. Hautaketa prozesuetan jokabide inklusiboak sustatu behar dira, eta emaitza ona izan duten kasuak ezagutzera eman, gainerakoentzat inspirazio iturri izan daitezten.

BFAREN Enplegu Planean garrantzitsutzat jotzen da "adinaren dibidenduari" merezi duen balioa ematea. Hainbat belaunalditako jendea duten lan inguruneak sortzen badira, ideiak eta aberastasuna sortzeko eta gizarte kohesioa lortzeko bide garrantzitsu bat izan daitezke.

Horregatik guztiagatik, lanpostu teknikoetan esperientzia duten eta langabezia daukaten 50 urtetik gorako emakumeen lan-munduan sartzen laguntzeko programa pilotu hau diseinatu eta abian jarri da, edo, lanpostu hutsik egonez gero, lana hobetzen ari diren pertsonak ere sar daitezke.

CEBEK – Bizkaiko Enpresarien Konfederazioarekin lankidetzan egin da; izan ere, horixe da Bizkaiko enpresa sareko eragile nagusia, eta, bertan sartuta dauden sektorekako elkarteekin batera, etengabeko harremana du enpresekin, eta badaki enpresek zer profil profesional behar dituzten.

Lankidetzaren bidez, BFAREN Enplegu Planaren hirugarren printzipio orokorra betetzen da, hau da, enpresa erakundeak politika publikoen erdigunean kokatzea langabeekin batera, gaitasun profesionalen eta enpresen beharren arteko oreka lortzeko, eta gainera, «okupagarritasunaren» kontzeptuari merezi duen balioa ematen zaio. Programak diseinatu eta garatzen direnean, parte hartzen duten langabeak laneratzeko lortu nahi da, ingurune sozioekonomikoarekin koherentzia.

**3. Aplikatu beharreko araudia**

Emalan Plus programa oinarri orokor hauetan xedatutakoa betez garatuko da.

**4. Programaren helburuak**

- Zenbait tresna jartzea, parte hartzen duten emakumeak kompetentzietan eta trebetasunetan prestatzeko, eta, horrela, lana bilatzeko ibilbide pertsonalizatuak diseinatu eta ezarri ahal izateko.
- Parte hartzaile bakoitzari akonpainamendu integrala eta banan-banakoa eskaintzea, lanbide etorkizuna planifikatzen laguntzeko, eta balio proposamena sortzea eta lana bilatzeko ekintza plana abian jartzea.
- Parte hartzaileek lana aurkitzea.
- Era berean, Bizkaiko enpresak kontzientziatu nahi dira aurreiritziak alde batera uzteko eta emakumeei aukera berdinak emateko.

**5. Gauzatzeko epeak**

Emalan Plus programa oinarri hauek argitaratzen direnetik 2022ko azaroaren 30era bitarte garatuko da.

- Parte hartzaileen hautaketa 2022ko martxoan egingo da.
- 2022ko apiriletik azarora bitarte programa aktiboki gauzatuko da, parte hartzaileekin.

**6. Hartzaileak eta baldintzak**

Gehienez 30 parte hartzaile hautatuko dira, eta baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Emakumeak izatea.
- Langabezian egotea edo lanpostu hobe baten bila ibiltzea.
- 50 urtetik gorakoak izatea.
- Bizkaian bizi izatea.
- Ardura handiko lanpostu kualifikatuetan esperientzia izatea (eta hori frogatu ahal izatea): besteak beste, zuzendaritza postuetan, buruzagitza postuetan, erdi mailako karguetan, edo zeinahi espezialitatetako lanpostu teknikoetan.
- Atzerritarra izanez gero, lan baimena indarrean izatea.

**7. Programaren edukiak**

Emalan Plus programak akonpainamendu integrala eta intentsiboa eskainiko die parte hartzaileei, lana aurkitzen laguntzeko. Horretarako, jarduketa hauek egingo dira:

**1. Jarduketa—*Lan aktibazioa, trebetasun pertsonalen garapena eta lan orientazioa***

Programak zenbait tresna izango ditu, parte hartzen duten emakumeak kompetentzietan eta trebetasunetan prestatzeko, eta, horrela, lana bilatzeko ibilbide pertsonalizatuak diseinatu eta ezarri ahal izateko.

Programaren iraunaldian, zortzi hilabetez, banakako eta taldekako saioak egingo dira aldian behin.

*Banakako saioak:* Emakume parte hartzaile bakoitzak enplegurako akonpainamendu prozesuetan aditua den coach-mentore baten aholkularitza indibiduala izango du, eta mentoreak lagundu egingo dio lehen autoebaluazioa egiten, emozionalki indartzen eta motibatzen, bere helburu profesionala identifikatzen, dauden aukera profesionalak berrikusten, balio proposamen bat egiten eta ekintza plana planifikatzen.

Era berean, lana bilatzeko prozesuan ager daitezkeen oztopo guztiak ikusten, prebenitzen edo horiei aurre egiten ere lagunduko dio.

Azken batean, mentoreek akonpainamendua, aholkularitza eta laguntza eskainiko dituzte prozesu osoan, parte hartzaileak laneratzea lortzeko.

Saioak aurrez aurre, telefonoz eta online egingo dira, eta parte hartzaile bakoitzaren beharren arabera planifikatuko dira.

*Taldeko saioak:* Aldia-aldian, DEMAren Barakaldoko instalazioetan taldeko saioak egingo dira, profesionalak enplegarritasunean gaitzeko. Saio horietan, enplegu bilake-



ta modu eraginkorrean egiteko konpetentziak hobetzeko tresnak eskainiko zaizkie parte hartzaileei.

Jorratu beharreko gaiak:

- Ziurgabetasun aldi baten kudeaketa emozionala.
- Balio proposamen profesionalaren azterketa.
- CVa, Linkedineko profila eta ingurunera igorritako komunikazio mezuak.
- Lan merkatuan sartzeko bideak: ezkutuko eta ageriko merkatua.
- Networking estrategia eraginkor baten diseinua eta abian jartzea.
- Proiektu profesional berriak detektatzeko ekintza plana hainbat kanaletan.
- Elkarrizketetarako prestakuntza eta entrenamendua.

Saio bakoitzaren gaiak eta edukiak berariaz diseinatuko dira, parte hartzaile taldea osatu eta haien beharrak eta lehentasunak ebaluatu ondoren.

## 2. Jarduketa. — *Jarraipena eta akonpainamendu pertsonalizatua lana bilatzeko ibilbideetan eta hautaketa prozesuetan, lan kontratua itxi arte*

Mentoreek akonpainamendu aktiboa eskainiko diete emakume parte hartzaileei, haien ekintza plana inplementatzen den bitartean, eta enpresetara hurbiltzeko ematen dituzten urratsen jarraipena egingo dute. Mentoreek parte hartzaileen zerbitzura jarriko dituzte beren esperientzia eta enpresa inguruneari buruz duten ezagutza. Lan aukerak bilatzen eta horietara aurkezten lagunduko diete, hautaketa prozesuetarako prestatuko dituzte, eta prozesuan izan ditzaketen zalantzak argituko dituzte. Dena den, emakume parte hartzaile bakoitza izango da lana bilatzeko bere ibilbidearen buru eta arduradun.

## 3. Jarduera. — *Enpresa-prospekzioa eta Bizkaiko enpresen arteko kandidaturen sustapena (hautaketa-prozesuetan parte hartzea bilatuz)*

Programak irauten duen bitartean eta, bereziki, parte hartzen duten emakumeek lana bilatzeko ekintza-planak landu ondoren, programak modu aktiboan sustatu eta zabalduko ditu hautagaiak Bizkaiko enpresetan, lan-aukerak bilatuz. Horretarako, CEBEKe eta haren elkarte sektorialek programari lagunduko diote, eta 3.500 enpresa elkarturen artean bideratuko dute informazioa.

## 8. Deialdia: izena emateko epea

*Parte hartzeko eskaerak jasotzeko epea:*

Oinarri hauek argitaratzen direnetik 2022/03/03ko 23:59ra arte.

*Eskaerak aurkezteko modua:*

Izena emateko eskaera telematikoki egin behar da, DEMAren webguneko atal honetan:

- <https://www.dema.eus/programas-dema/emalan-plus/>

*Izena emateko, formulario bat bete eta agiri hauek erantsi behar dira:*

- NANA (bi aldeetatik)
- Eskatzailea Lanbiden izena emanda egon den denborari buruzko txostena
- Curriculum Vitaea
- Lan bizi-tza

## 9. Parte hartzaileak aukeratzeko prozesua

1. Informazio bilera orokorra, inskribatutako pertsonen programaren helburuak eta jarduketak azaltzeko. Online egingo da.

2. Eskatzaileek programan sartzeko oinarrizko baldintzak betetzen dituztela egiaztatzea.



3. Curriculum Vitaearen eta lan bizitzaren balorazioa egitea, prestakuntzaren eta esperientziaren arabera, eta elkarrizketara igaroko diren hautagaitzen lehen hautaketa egitea.

Lanpostu teknikoetan ibilbide profesional sendoak dituzten profilak lehenetsiko dira, hots, zuzendaritza lanpostuak, burutzak, erdi mailako kargudunak eta beste lanpostu tekniko batzuk.

4. Banakako elkarrizketa: eskatzailearen profil pertsonala eta ibilbide profesionala hobeto ezagutzeko, eskatzailearen egungo egoera eta parte hartzeko motibazioak ezagutzeko eta zalantzak argitzeko.

5. Erabakia: aurreikuspenen arabera, hautaketa prozesuaren emaitza 2022ko martxoan jakinaraziko zaie izena eman duten guztiei, posta elektronikoz. Gainera, programan onartutako emakumeei telefonoz deituko zaie eta programatutako lehen jarduerarako deia egingo zaie.

Eskaera asko jasotzen badira, eta horregatik beharrezkotzat jotzen bada, litekeena da tarteko hautaketa probak egitea, nortasunari eta/edo eskumenei buruzko galdetegen bidez.

Lanbideen, adinen eta langabezia daramaten denboraren arabera, profil multzo heterogeneoa aukeratzea proposatzen da.

Hautaketa epaimahaia: DEMAko bi pertsona eta CEBEKeko bi pertsona izango dira epaimahaikideak, eta aholkularitza enpresa espezializatuen laguntza teknikoa izango dute. Aholkulari horiek hautaketa probak egingo dituzte eta hautagaitza finalistak proposatuko dituzte.

#### **10. Betebeharrak eta ez betetzeak**

Programaren hasieran, 2022ko azarora arte programan parte hartzeko konpromisoa sinatu beharko dute pertsona hautatuek, eta, une horretan, erroldatze agiria aurkeztu beharko dute bizilekua egiaztatzeko. Atzerritarra izanez gero, indarrean dagoen lan baimenaren kopia aurkeztu beharko dute.

Parte hartzeko konpromiso horretan, bere aholkulariak adierazitako banakako saioetara eta prestakuntzako talde-saioetara joateko betebeharra jasoko da, eta gehienez ere 3 huts onartuko dira, programan justifikatuta edo justifikatu gabe. Gainera, proposatutako plangintza-lanetan, aholkulariak ezarritako erritmoan egin beharko du aurrera. Betebehar horietakoren bat betetzen ez bada, programa utzi beharko da nahitaez, aholkulariak txostena egin ondoren.

Parte hartzaile batek lana aurkitzen badu, berehala jakinarazi beharko dio bere mentoreari, eta programan baja emango zaio, laneratzeko helburua bete delako. Laneratzearen berri emateko konpromiso horrek indarrean jarraituko du programaren jarduketak amaitu eta hurrengo 3 hilabeteetan, programaren laneratze emaitzak hobeto ezagutu eta ebaluatu ahal izateko.

Hautatutako pertsonak beren borondatez parte hartuko dute programan, eta funtsezkoa izango da haien inplikazioa eta proaktibotasuna jarduketa guztietan, ezarritako helburuak bete daitezen. Programan parte hartzen dutenek ez dute inolako kontraprestazio ekonomikorik jasoko.

#### **11. Datuen babesa**

DEMA – Bizkaiko Enplegu eta Ekintzaitelza Foru Agentziak bermatzen du datu pertsonalak babesteko indarrean dagoen araudia betetzen duela, eta, bereziki, honako arau hauek betetzen dituela: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko (indargabetu egiten du aurretiko 95/46/EE Zuzentaraua, datuak babesteko erregelamendu orokorra –DBEO–) eta 3/2018 Lege Organikoa, 2018ko abenduaren 5koa, datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa –DPBEDBLO–.



DEMAk datuak tratatzeko baldintzen berri ematen die erabiltzaileei, eta honako informazio hau helarazten die:

#### TRATAMENDUAREN ARDURADUNA

- Identitatea: Enpresa Garapenari Laguntzeko Elkartea (DEMA-Enpresa Garapena).
- IFK: G48408405.
- Posta helbidea: Fanderia 2, 48901-Barakaldo (Bizkaia).
- Datuak babesteko ordezkariarekin harremanetan jartzeko:
  - Telefonoa: 944 189 055
  - Helbide elektronikoa: dpo-dbo@dema.eus

#### TRATAMENDUAREN HELBURUA

Jendeak emandako informazioa kudeatzen dugu, Elkartearen helburu sozialaren eremuan programak, jarduketak eta ekitaldiak kudeatzeko.

#### LEGITIMIZAZIOA

Programa, jarduketa eta ekitaldietan parte hartu ahal izateko emandako datu pertsonalak tratatzeko legezko oinarria interesdunaren baimena da.

#### DATUAK GORDETZEA

Oro har, tratamendu bakoitzaren helburuak betetzeko behar den denboran gordeko dira datuak, eta, ondoren, datu horien tratamendutik erator daitezkeen erantzukizun juridikoen arabera gordeko dira.

#### TRATATUTAKO DATUEN KATEGORIAK

Programa, jarduketa eta ekitaldietan tratatzen diren datuak kategoriatan hauek dira: identifikazio datuak; ezaugarri pertsonalak; egoera soziala, akademikoa eta profesionala (prestakuntza, titulazioak); lanbidea; ikasle historia; lan esperientzia; enpleguaren xehetasunak; datu ekonomiko-finantzarioak; eta ondasunen eta zerbitzuen transakzioei buruzko datuak.

#### DATUAK LAGATZEKO AUKERA

Datuak hirugarren erakundeei eman dakizkieke; hain zuzen, jardueran edo programan parte hartzen duten erakunde pribatuei eta/edo gai honetan eskumena duten eta dirulaguntzak emango dituzten administrazio publikoei.

Gainera, egoera jakin batzuetan, argazkiak eta bideoak egin ahal izango dira DEMAK antolatutako programen kudeaketaren esparruan. Eduki horiek DEMAren webgunean eta sare sozialetan argitaratu daitezke, bai eta liburuxketan eta komunikabideetan ere. Hala, argazki eta bideo horiek edozeinek ikus ditzake webgunean, sare sozialetan eta/edo DEMAren jarduerak aurkezteko ekitaldietan.

#### ERABAKI AUTOMATIZATUAK

Ez da aurreikusten erabaki automatizatueta oinarritutako tratamendurik, inolaz ere.

#### ESKUBIDEAK

*Zer eskubide dituzte interesdunek, beren datuak ematen dizkigutenean?*

Interesdunek DEMAn beraien datu pertsonalak tratatzen ari ote diren egiaztatzeko eskubidea dute. Era berean, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrak –DBEO– aurreikusten duen bezala, interesdunek eskubide hauek dituzte:

- Datuetara sartzeko eskubidea: DEMAn zer datu pertsonal tratatzen ari diren jakiteko.
- Datuak zuzentzeko edo ezabatze eskubidea: zenbait baldintzatan, DEMA tratatzen ari den datu pertsonal okerrak zuzentzeko eskubidea dute interesdunek, bai



eta datu horiek ezabatzea eskatzeko eskubidea ere, beste arrazoi batzuen artean, datuak jada ez badira beharrezkoak bildu ziren helburuetarako.

- Datuen tratamendua mugatzeko eskubidea: egoera jakin batzuetan, datu pertsonalen tratamendua mugatzea eskatzeko eskubidea dute interesdunek. Kasu horretan, jakinarazten da erreklamazioak egiteko edo defendatzeko baino ez direla gordeko datu horiek, datuak babesteko araudiak aurreikusten duen bezala.
- Datuak eramateko eskubidea: zenbait baldintzatan, DEMari emandako datu pertsonalak jasotzeko eskubidea dute interesdunek, betiere teknikoki egin badaiteke. Kasu horretan, datuak ohiko erabilerako eta irakurketa mekanikoko formatu egituratu batean jasoko dituzte interesdunek, eta tratamenduaren beste arduradun bati helarazi ahalko dizkiote.
- Datuen tratamenduari aurka egitea: zenbait baldintzatan, eta pertsona bakoitzaren egoera partikularrarekin zerikusia duten arrazoiengatik, interesdunak datuen tratamenduari aurka egiteko eskubidea du. Kasu horretan, datuak tratatzeari utziko zaio, non eta ez diren nahitaez tratatu behar premiazkoa arrazoi legitimoengatik edo balizko erreklamazioak egiteko edo defendatzeko.

*Noiz erantzungo zaio eskariari?*

Ahalik eta azkarren erantzungo da, eta, nolana ere, eskaera jasotzen denetik hilabeteko epean. Hala ere, beharrezkoa izanez gero, epe hori beste bi hilabetez luzatu daiteke, eskaera kopuruaren eta haien konplexutasunaren arabera; kasu horretan, interesdunari atzerapenaren berri emango zaio.

*Interesdunak bota dezake atzera baimena?*

Interesdunak edozein unetan baimena atzera botatzeko eskubidea du, betiere tratamendua baimen horretan oinarritzen bada.

*Nora jo behar du interesdunak, bere eskubideak gauzatzeko?*

Aitortutako eskubideak gauzatzeko, interesdunak aukera hauek ditu DEMarekin harremanetan jartzeko: [dpo-dbo@dema.eus](mailto:dpo-dbo@dema.eus) helbide elektronikora idaztea, edo tratamenduaren arduradunari buruzko lehenengo atalean adierazitako helbidera idaztea.

*Interesdunak badu erreklamazioa egiteko eskubiderik?*

Bai, bereziki interesduna ez bada gustura gelditu bere eskubideak gauzatu dituean. Kasu horretan, erreklamazioa aurkeztu dezake Datuak Babesteko Espainiako Agentzian ([www.agpd.es](http://www.agpd.es)).